



Emakundek Berdintasunerako Legearen eraldaketarako zirriborroa audientzia publikoan jarriko du bihartik aurrera

Emakunde lanean ari da azken urteotan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean instituzioen erantzuna hobetu eta indartuko duen tresna arauemaile bat aprestatzen. Horretarako, 2017an eta 2018an zehar egin zen parte hartze prozesua funtsezkoa izan zen erronkak eta hobekuntza-guneak identifikatzeko, baita horiei aurre egiteko lege-formula egokiena zein den argitzeko ere. Egindako lan horren emaitza da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren zirriborroa. Zirriborro hori, Emakunderen Zuzendaritza-Kontseiluak 2019ko martxoaren 6an egindako bileran aurkeztu zen. Aurkezpena egin eta gero, martxoaren 12an entzunaldia eta jendaurreko aldia irekiko da eta apirilaren 12ra arte luzatuko da.

Aurreproiektuaren zirriborroa ikusteko eta ekarpenak egiteko aukera ematen zaie hiritarrei bihartik aurrera [Irekian](#), Emakunderen web-gunean, edota emakunde.legealdaketa@euskadi.eus posta elektronikoa eta ekarpenak postaz bidaliz: Manuel Iradier, 36, 01005 Gasteiz.

Horrez gain, aurreproiektuan interesa izan dezakeen edozein pertsona, eragile edo erakunderi zabalik egongo diren hiru saio ere antolatu dira. Saio horietan, aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztuko da eta ekarpenak egiteko baliabideak eta epeak gogoratuko dira. Martxoaren 20an Donostian (16:30-17:30, Eusko Jaurlaritzaren egoitza (Andia, 13), Ekitaldi-aretoa), eta martxoaren 25ean Gasteizen (11:00-12:00, Eusko Jaurlaritzaren egoitza (Donostia-San Sebastián, z/g), Euskaldunberri ekitaldi-aretoa) eta Bilbon (16:30-17:30, Eusko Jaurlaritzaren egoitza (Kale Nagusia, 85), Ekitaldi-aretoa).

Legearen aldatetaren bidez, “berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako politika eta herri itun handi bat” ahalbidetu nahi dira, politika horiek indartzeko eta araudiaren eta gizartearen testuinguru berriaren ondoriozko behar berriei egokitzeko. Araudiaren testuinguru berriari dagokionez, legearen aldatetarekin euskal ordenamendu juridikoak bat egiten du Istanbulko hitzarmenarekin, 2011an Europako Kontseiluak adostutakoarekin eta Estatu Espainolean 2014an indarrean jarri zenarekin, haiz zuzen ere. Istanbulko Hitzarmenak dio arautu behar dela genero

arrazoiengatik ematen den diskriminazioaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren artean dagoen lotura azpimarratuz. Lotura hau azpimarratzeko aukeratu da, hain zuzen ere, Berdintasun Legea aldatzeko formula emakumeen kontrako indarkeriaren alorrean berezitako lege baten aldeko apustua egin beharrean. Berdintasunerako legeak jadanik gai hau arautzen baitzuen, gainontzeko desberdintasun adierazpenekin batera.

Hemen legea aldaketak dituen erronka batzuk eta proposatu diren neurriak:

ERRONKAK	NEURRIAK
Ikuspegi bateratua lortu emakumeen aurkako indarkeria berdintasun ezaren arazo sistemikoan duen kokapenari dagokionez.	Berdintasunerako legea indartu esku-hartzeko eremu guztietan Berdintasun politikei zuzendutako baliabide pertsonalak, ekonomikoak eta materialak handitu
EAEko legedia egokitu azken urteetan onartutako arauetara	Berdintasunerako legean jaso Istanbulen Hitzarmenak, haurrak eta nerabeak babesteko legeak, Delituaren Biktimen Estatutuak eta beste lege batzuek agindutakoa
Eragindako profesional guztien prestakuntza bermatu	Eragindako profesional guztien derrigorrezko prestakuntza (hasierakoa eta etengabea).
Poliziaren eta arlo judizialaren ikuspegiak eta salaketak duten erdiguneko rola gainditu	Biktimen eskubideak eta euren ahalduntzea erdigunean jarri Behar duten laguntza eskuratzeko salatzea ez da baldintza izango
Eragindako profesionalen ikuspegi bateratua bermatu	Hainbat sektoretako profesionalentzako prestakuntza bateratua eskaini eta trukerako espazioak sortu
Ikuspegi intersektionala bermatu	Biktima guztien atentzio integrala, doakoa eta kalitatekoa bermatu, bereziki zaugarritasun handiagoko egoeretan dauden horienak.
Ikerketa lana areagotu eta datuen bilketa eta erregistroa hobetu	Informazioa bateratzeko komunikazio sistema elektronikoa sortu Ikerketak, baliabideen eta beharizanen mapak eta biztanleria osoko inkesta prospektiboak egin
Herritarren sentsibilizazioa handitu	Emakumeentzako ahalduntze programak

	Gizonentzat maskulinitate berdinzaleak sustatzeko programak
Prebentzio lana areagotu	Berdintasun politikak indartu, bereziki, hezkuntzan, hedabideetan eta informazio-teknologiaren esparruan
Detekzio goiztiarra areagotu	Detekzio goiztiarrerako protokoloak esparru guztietan ezarri eta aplikatu
Haurrei eta nerabeei babesa indartu	Haurren eta nerabeen gorenko interesaren printzipioa jaso Indarkeria giroan bizi diren haurrak eta nerabeak biktimatzat jo Euren beharrei egokitutako zerbitzuak bermatu
Laguntzen sistema hedatu indarkeria mota guztien biktimei	Etxeko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimei ez ezik, gainontzeko indarkeria moten biktimei ere laguntza bermatu
Erreparazio eskubidea bermatu	Kalte-ordainak, egiaren aitortza, indarkeria ez errepikatzea eta erabateko errekupeazioa bermatu
Koordinazioa hobetu	Koordinazio akordioak eta protokoloak eguneratu eta zabaldu Espedienteen kudeaketa integratua